



Begarako
Udala

ESKOLA GARRAIOAREN DIRU-LAGUNTZA ZEHAZTEKO HITZARMENA

Bergaran, 2020ko martxoaren 3an

BILDU DIRA

Alde batetik,

GORKA ARTOLA ALBERDI jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik,

AGURTZANE LOIDI LARRAÑAGA andrea, adinez nagusia, zenbakidun NAN duena, eta Bergaran, Herrilagunak 1ean dagoen Telesforo Aranzadi Koop. ikastolako gerentea, Aranzadi ikastolaren izenean.

GOTZON IPARRAGIRRE SAN SEBASTIAN jauna, adinez nagusia, zenbakidun NAN duena, eta Bergaran, Bidekurutzeta kalean dagoen Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, Mariaren Lagundia ikastolaren izenean.

Agurtzane Loidi Larrañaga andreak eta Gotzon Iparragirre San Sebastian jaunak, Alkatearen aurrean adierazi ondoren haiek ordezkatzeko dituzten ikastolak ez daudela estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo adierazi dute.

ADIERAZPENAK

Eusko Jaurlaritzak doako zerbitzua ematen die sare publikoan matrikulatuta dauden auzoetako ikasleei ikastetxera joan etorria egin dezaten.

Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek batera antolatzen dute eskola garraioa ikastola bietako haurrentzat, eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik ez dute jasotzen horretarako diru-laguntzarik. Zerbitzu horren kudeaketa txandaka egiten dute bi ikastolen artean.

Udalak auzoetako ikasleen eskola garraioa diruz laguntzea erabaki du, ikasle hauen familiak, edozein ikastetxe eredu aukeratu ahal dezaten modu berdintsuan. Horrez gain, 2019/20 ikasturtean, herrigunean bizi diren ikasleen eskola garraioa ere diruz lagunduko du.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena adostu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Udalak lagunduko duen zerbitzua.

Udalak 2019 / 2020 ikasturteko Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako ikasleen garraio eta zaintza zerbitzua diruz lagunduko ditu. Zerbitzu horren antolakuntza eta kudeaketa ikastolen ardurapekoa izango da. Hitzarmen honen gaineko edozein jakinarazpen Mariaren Lagundia ikastolari egingo zaio, eta hori eginda bi ikastolak jakinarazita daudela ulertuko da.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren kopurua.

Bergarako Udalak 16.851,44€-ko diru-laguntza emango du 2019/2020 ikasturteko eskola garraioa diruz laguntzeko.

Kopuru honez gain, Udalak bere gain hartzen du *Herribusa* erabiltzen duten Angiozar, Osintxu, Ubera eta San Juan auzoetako DBH eta batxilergoko ikasleen (izena emanda daudenak) garraioaren kostua. Zenbateko hori faktura bidez ordainduko zaio zuzenean *Herribusa* kudeatzen duen enpresari.

HIRUGARRENA: Ordainketa.

Diru-laguntza kobratzeko hitzarmen hau sinatu beharko da eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu:

- Ikastolak Gizarte Segurantza eta Foru Ogasuneko ordainketetan, egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- Gastu horiei aurre egiteko eskatutako beste diru laguntzen agiria, zenbatekoa jasotzen duena, eta eskatu ez bada, zinpeko aitortpena.

Ordainketa egiteko autobus/zaintza zerbitzuaren eta banakako garraiorako diru-laguntzaren memoria eta balantze ekonomikoa aurkeztu beharko da. Baita:

- Izandako gastuen fakturak.
- Garraio gastuei aurre egiteko beste diru laguntzarik jaso badute diru laguntza horren agiria edota egindako diru laguntza eskaeren gaineko zinpeko aitortpena.

LAUGARRENA: Ikastolen betebeharrak.

Aranzadi Ikastolak eta Mariaren Lagundia ikastolak eskola garraio zerbitzua indarrean dagoen legedia betez eskainiko dute, horretarako Eusko Jaurlaritzak ikastetxe publikoetako ikasleen garraiorako jartzen dituen baldintza berberak betetzeko konpromisoa hartu dute.

Ikastolek ez dituzte oztopatuko Udalak egin ditzakeen ikuskapenak.

BOSGARRENA: Iraupena.

Hitzarmen hau 2019ko irailean hasi eta 2020ko ekainean bukatzen da. Diru-laguntza hau borondatezkoa da eta aurrerantzean ezin izango da aurrekarizat hartu.



Begarako
Udala

SEIGARRENA: Diru-laguntzak bateratzea.

Udalak emango duen diru-laguntzaz gain, helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso daiteke. Hala ere, diru-laguntzak ezin izango du jardueraren kostua baino altuagoa izan.

ZAZPIGARRENA: Diru-laguntza kopuruaren aldaketa.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatuko balitz, edo Udalaren diru-laguntzaz gain beste bat jasoko balitz, emandako kopurua alda daiteke.

ZORTZIGARRENA: Dirulaguntzen kentzea.

Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, hauetakoren bat gertatuz gero:

- Ikastolek betebeharrak ez betetzea.
- Diru-laguntza beste helburu baterako erabiltzea.

HAMARGARRENA: Aurreikusita ez dagoena.

Kontratu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hori garatzen duen gainontzeko legedia aplikatuko da.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzek konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean laukoiztuta sinatzen dute.

Alkatea

Gorka Artola Alberdi

**Telesforo Aranzadi
Koop. ikastola**


**Agurtzane Loidi
Larrañaga**
San Martin plaza, 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 769 177 • Faxa: 943 769 177

**Mariaren Lagundia
ikastola**


Gotzon Iparragirre

San Sebastian

